

(II)

**NOTARIAREN ZILARREZKO ZALIA**

Bazen bertze orduz Basusarrin notari bat J-B- Dacos deitua. Doneo zen eta omen ez biziki seriosa, Baionako uixer batekin arras adixkide zen, eskola-lagunak izanak bortz-pa-sei urtez. Adixkideak J.P. Etxexuri zuen izena. Elgarri ez zuten deiturarik ibiliko, Battitta eta Janpierra baizik.

Janpierra noiztenka heldu zen Basusarrirat Battittarekin bazkaldu beharrez, eta ordainez Battittak gogotik jaten zuen Baionan, Janpierra-ren mahainen, hirirat jausten zelarik.

Egun batez bere lagunaren errezebitzeko ateratu zuen zilareria guzia. Hain xuxen berrikitan ukana zuen ondorez izeba xahar baten gain. Bazkaria ongi joan zen, frango algeraki, eta zilarrierauk ukana zuen elepide, bi ahamenen artetik.

Janpierra, jan-eta, lehen estaiarat igan zen lo kuluxka baten egiterat, eta lauak irian milesker erranik itzuli zen etxe alde.

Gelaria etorri zitzaison bortz orenetan notariari:

—Jauna, baxerak egin ditut eta ez dakit zilarreko zali ederra zer bilakatu den.

Mia eta mia ari izan ziren, bai jateko salan, bai sukaldetan, bai xurrutegian. Nehun ez ageri.

Biaharamunean notariak erran zion gelariari:

—Banago jaun uixerak ez dautanez jostatzeko nimbait gorde ala etxerat ereman. Izkiriakoko diot.

Eta hauxe izkiriatu zion:

"Janpierra maitea, xisfrituak gaituk Marzelina eta ni zilarreko zalia galdurik. Pentsamendu bitxi bat pasatu zaitak burutik. Ea hik uste gabetarik ala arralheriaz itzal-arazi dukan. Kasu hori balitz, turna ezaguk otoi edo hitz bat igor, gelariak ez dezan griñarekin burua gal. Ez adiorik. Battitta."

Eta huna Janpierraren arrapostua: "Battitta maitea, Bai nik gorde dait zilarreko zali baliosa. Harritua niagok nola ez dukan arrats har-tan berean aurkitu. Hiru ohean sakatu nian, irri egiteko. Nun demontre egin duk lo, deusi ez baihaiz ohartu? Nahiago diat ez jakin, itsusia! Ez adiorik Janpierra."

Abbe Lafitte

Presente zaitak = Il m'est passé  
 gorde dusat = Je te l'ai couché  
 Harritua niagok = Je reste étoune .

34 - UKAN = Conf. à 3ème cpt. - Imperatif O. Si - C. Pl  
Guru = à nous.

Zuk ukhan ezaguze = ayez - le nous  
 Hik - II - ezaguhen = aies - le nous  
 Harek - II - bezagu = qu'il nous l'ait  
 Zuek - II - ezaguize = ayez le nous  
 Heiek - II - bezagute = qu'ils nous l'aient

② ADITZ IKASKUNTZA.

- |                      |                     |
|----------------------|---------------------|
| 31 Ethorri zitzaison | 32. Izkiriakoa zion |
| 33 Ez dezan          | 34 Turna ezaguk     |
| 35 - gaituk          | 36 - diat -         |

31. IZAN. Régime indirect. Indic. Imparfait  
(Hura) zen = il était.

- |                                           |       |
|-------------------------------------------|-------|
| Hura (lui) zitzaitan (à moi) = il m'était | Objet |
| " zitzazun (à vous) : il vous était       |       |
| " zitzaien (à lui) = il lui était         |       |
| " zitzaien (à nous) = il nous était       |       |
| " zitzaien (à eux) = il leur était        |       |

32. UKAN. Conj. à 3ème cpt. Indic. Imparfait

- |                                   |       |
|-----------------------------------|-------|
| Nik nion = je le lui avais        | sing. |
| Zuk zinon = vous le lui aviez     |       |
| Harek zion = il le lui avait      |       |
| Guk qinon = nous le lui avions    |       |
| Zuek zinoten = vous le lui aviez  |       |
| Heiek zioten = ils le lui avaient |       |

33. UKAN. Subj. Présent. - Objet sing.

Nik ukhan dezatan = que je l'aie

Hik - II - dezakan/nan = que tu l'aies

Zuk - II - dezazun = que vs l'ayez

Harek - II - dezan = qu'il l'ait

Guk - II - degagun = que us l'ayons

Zuek - II - dezagueun = que vs l'ayez

Heiek - II - dezaten = qu'ils l'aient